

1.- ZERGA EGITATEA

3. artikulua.- **Lurraldetasuna.** Bi eta Hiru apartatuen idazkera berria.

7. artikulua.- **Eragiketa zergapetu gabeak:**

Unitate ekonomikoaren eskualdaketa. Zergapetu gabeko eragiketa (7.1. art.): subjektuaren ondare enpresarial edo profesionalaren zati izanik, unitate ekonomiko bat osatzen duten elementu gorpuzdun eta, hala badagokio, gorpuzgabe multzo baten eskualdaketa.

Berrikuntza:

- Multzo horrek unitate ekonomiko bat osatzea “edo osatzeko modukoa izatea”.
- Unitate ekonomiko autonomo horrek “eskualdatzailearentzat” izan behar du izaera hori.
- Zergapetu gabeko eragiketetatik kendu egin da “ondasun edo eskubideen lagapen soila”.

Publizitaterako inprimaki edo objektuen entregak, kontraprestaziorik gabe (7.4. art.).

Berrikuntza:

- Zergapetzeko muga 200 €-ra eguneratu da.

Eragiketa zergapetu gabeak. Herri administrazioak. (7.8 art.): “Herri administrazioek” kontraprestaziorik gabe edo zerga izaerako kontraprestazioaren bitartez zuzenean egindako ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak.

Berrikuntzak:

- Herri administrazioen esparru subjektiboa zehaztu egin da.
- Kudeatzeko aginduak betez emandako zerbitzuak ez dira zergapetuko.
- Tributuen Zuzendaritza Nagusiak mantentzen duen “organo tekniko-juridikoaren” teoriari lege-maila eman zaio.

8. artikulua.- **Ondasun entregaren kontzeptua.**

- **Bi atalean 8. zenbaki berria sartu da: Ondasun entregak izango dira:** balore eskualdaketak, baldin eta beroriek edukitzeak ondasun higiezin baten osotasunaren edo zati baten jabetza, erabilera edo gozatzea ziurtatzen badute, izatez edo eskubidez, Legearen 20.Bat.18.k) artikuluan aurreikusitako kasuetan.

9. artikulua.- **Ondasun entreegi asimilatutako eragiketak.**

- Eguneratu egin da 9.1.c)c') artikulua idazkera: “Kreditu entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimena arautzen duen 10/2014 Legeak, ekainaren 26koak, hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen errentamendu finantzarioko eragiketak”.

18.Bi artikulua.- **Ondasun inportazioak.**

- Ez da inportaziotzat hartuko ondasunak area salbuetsietatik ateratzea (23. art.) edo aduanetako erregimenak abandonatzea (24. art.), baldin eta ondasun entrega horretan aplikaziozkoak badira esportazioetan, esportazioei asimilatutako eragiketetan eta ondasunen batasun barruko entregetan ezarritako salbuespenak (21., 22 eta 25. artikulua).

19.5.1.4 artikulua.- **Inportazioei asimilatutako eragiketak.**

Ez da inportazioari asimilatutako eragiketatzat hartuko ondasunak area salbuetsietatik ateratzea (23. art.) edo aduanetako erregimenak abandonatzea (24. art.), baldin eta ondasun entrega horretan aplikaziozkoak badira esportazioetan, esportazioei asimilatutako eragiketetan eta ondasunen batasun barruko entregetan ezarritako salbuespenak (21., 22 eta 22. artikulua).

2.- SALBUESPENAK

2.1.- 20.Bat artikulua.- **Salbuespenak ondasun ez-higiezinaren barne eragiketetan.**

- **Hezkuntza (9 zk.):** honakoa erantsi da: haurrak zaintzea ikastetxeetan, ikastorduez kanpo, eskolako jangelan, edota ikasgelan, haurtzaindegi zerbitzuan, eskola ordutegiaz kanpo.
- **Irabazi asmorik gabeko entitateak (12 zk.):** ezabatu egin da helburuak “soil-soilik” politikoak, sindikalak, erlijiosoak eta abar izan beharra.
- **Finantzarioak (18 zk.):** ezabatu egin da ñ letra, notarioek eta erregistratzaileek zenbaki honetako eragiketa finantzarioetan parte hartuz emandako zerbitzuen salbuespenei buruzkoa.
- **Salbuespen teknikoak (24 zk.):** Ez zaie aplikatuko: a) Erregularizazio aldiaren barruan egiten diren inbertsio ondasunen entregei b) Aurreko 20 eta 22 zenbakietan jasotako salbuespenak bidezkoak direnean.

2.1.- 20.Bat eta Bi artikulua.- **Salbuespenak ondasun higiezinaren barne eragiketetan.**

- **Landa-lurren entregak (20 zk.):** lur urbanizatuen edo urbanizazio bidean dauden lurren entregak ez dira salbuetsita egongo; orain ezabatu egin da entrega horiek “urbanizazioaren sustatzaileak” eginak izatea.
- **Konpentsazio batzordeak (21 zk.):** salbuespen hori ezabatu egin da; beraz, Konpentsazio Batzordeei egindako hasierako ekarpenaren ondorioz burutzen diren lur entregak, eta Batzorde horiek egindako esleipenak zergapetuak eta salbuetsi gabeak izango dira (enpresariak edo profesionalek egindakotzat jotzeko baldintzak betetzen badituzte behintzat).

Ondasun higiezinaren salbuespenari uko egitea (Bi atala):

- Zabaldu egin da uko egiteko aukera aplikatzeko esparrua.
- Eskuratzzaileak eskuraketa egindako unean jasandako BEZa "guztiz edo zati batean" kentzeko eskubidea izan behar du.
- Edo bestela, arestian aipatutakoa betetzen ez badu, eskuratutako ondasunari eman dakioken erabileraren arabera, ondasun hori, guztiz edo zati batean, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten eragiketak egiteko erabiliko badu.

2.2.- 21. artikulua.- **Salbuespenak ondasun esportazioetan.**

- Aldatu egin da 21. artikuluko 5 zenbakiko a) letra: Aipatutako esportazioekin zuzenean erlazionatutzat hartuko dira, ondorengo baldintzak betetzen dituzten zerbitzuak: a) esportazio horiek burutzen dituztenei, ondasunen hartzaileei edo hartzaile horien aduanako ordezkariari egitea.

2.3.- 24. artikulua.- **Aduana erregimenei eta erregimen fiskalei buruzko salbuespenak.**

- Aldatu egin da Bat.3.f) apartatua: Salbuetsita egongo dira ondorengo eragiketa eta ondasunekin zuzenean erlazionatutako zerbitzu prestazioak: ... f) aduanakoa ez den gordailu erregimen bati lotuak dauden ondasun inportazio salbuetsiak, Lege honen 65. artikulua arabera.

2.4.- 65. artikulua.- **Aduanako erregimenaz bestelako gordailu erregimenari lotetsitako ondasun inportazioak.**

- Mugatu egin dira aduanako erregimenaz bestelako gordailu erregimenari lotetsiak dauden eta inportazioa salbuetsita duten ondasun eta zerbitzuak. **2016/01/01etik aurrerako ondorioak.**

3.- BURUTZAPEN LEKUA

3.1.- 68. artikulua.- **Ondasun entregen burutzapen lekua:**

- Eskueran jarri aurretik instalatu edo muntatu beharreko ondasun entregak, betiere instalazioa aipatutako lurraldean bukatu behar bada, eta instalazioak edo muntaiak emandako ondasunen ibilgabetzea ekartzen badu. Ezabatu egin da kostuaren % 15eko muga.

3.2.- 69. artikulua.- **Zerbitzu prestazioak egiten diren lekua. Erregela orokorrak.**

- Bi apartatua ixteko klausula berrantolatu egin da: Honako letrak ezabatu egin dira: m) Bide elektronikoz egindako zerbitzuak; eta n) Telekomunikazio zerbitzuak, irratikoak eta telebistakoak.
- Hiru apartatua. 5. zenbakia erantsi zaio: Irrati eta telebista zerbitzuak. Zerbitzu digitalak.

3.3 - 70. artikulua.- **Zerbitzu prestazioak egiten diren lekua. Erregela bereziak:**

- Aldatu egin da bide elektronikoz emandako zerbitzuak eta telekomunikazio, irradi eta telebista zerbitzuak egiteko lekua (**70.Bat. 4.a eta 8.a**):
 - Hartzailea enpresaria edo profesionala ez denean eta hala jarduten ez duenean, zerbitzuak hartzailearen egoitzan egindakotzat joko dira.
 - Horrela, prestazio horiek bateratu egin dira, eta zerga-ordainketa hartzailearen egoitzan egingo dute, hartzailea edonor dela ere.
- Berrantolatu egin da 70.BI artikulua **ixteko klausula**.

4.- SORTZAPENA

4.1 75. artikulua.- **Zergaren sortzapena.**

- 75.Bat.2.bis artikulua. Idazkera eguneratu egin da, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 235. artikulua sartuta.

5.- ZERGA OINARRIA

5.1.- 78. artikulua.- **Zerga oinarria. Erregela orokorra.**

- Hiru apartatua. Ez dira sartuko: eragiketen prezioari lotetsi gabeko diru-laguntzak. Ez dira halakotzat hartuko hirugarren batek eragiketen kontraprestazio gisa ordaindutako kopuruak.
-

5.2.- 79.Bat. artikulua.- **Zerga oinarria. Erregela bereziak.**

- Bat apartatua. Erregela bereziak. Kontraprestazioa diru bidezkoa ez den eragiketetan:
 - Zerga oinarria: Bi aldeek adostutako kopurua, dirutan adierazia.
 - Kontrakoa frogatu ezean, autokontsumoetarako aurreikusitako erregelak aplikatuta ondorioztatzen diren kopuru berak izango dira.
 - Kontraprestazioa partzialki diru bidezkoa denean: kontraprestazioan diru bidezkoa ez den zatiari bi aldeek adostu eta dirutan adierazitako kopuruari, kontraprestazioaren diru bidezkoa den zatia gehitzearen

emaitza izango da, betiere emaitza hori aurreko erregelak aplikatuta zehaztu den emaitza baino handiagoa bada.

5.3.- 80. Hiru eta Lau artikulua.- **Zerga oinarria aldatzea.**

- Hiru: Konkurtsoa: oinarria 2 hilabeteko epean aldatu ahal izango da, Konkurtso Legearen 21.1.5 artikuluan ezarritako epea betetzen denetik aurrera.
- Lau A: Kreditu kobraezinak:
 - Enpresa txiki eta ertainak: zerga oinarria 6 hilabeteko epea bukatu ostean aldatu ahal izango dute, edo bestela, gainerako enpresariei exijitzen zaien urtebeteko epe orokorrari itxaron.
 - Kutxa erregimena: zergaren sortzapena eragiketa burutu ondorengo lehen urteko abenduaren 1eko gehieneko muga aplikatzen sortua denean, zerga oinarria aldatu ahal izango da 6 hilabeteko edo urtebeteko epe berriari itxaron gabe.

6.- **SUBJEKTU PASIBOA**

6.1.- 80.Bat.2.g) artikulua. Subjektu pasiboaren alderanzketa.

- Subjektu pasiboaren alderanzketarako kasu berria honako produktuen entregetan: (BEZaren Legearen Eranskinetako hamargarren apartatura jo da):
 - Zilarra, platinoa eta paladioa.
 - Telefono eramangarriak: 10.000 eurotik gorako entregak (hilean).
 - Bideojoko kontsolak, ordenagailu eramangarriak eta tableta digitalak, diru-muga berarekin.
 - **2014/07/01etik aurrerako ondorioak.**

6.2.- 89.Bost artikulua.- **Jasanarazitako zerga kuotak zuzentzea.**

- Hasiera batean jasanarazitako kuoten gutxitzea dakarten zuzenketak. Aukerak:
 - Egoera kasuan kasuko aitortpen-likidazioan erregularizatzea (hori mantendu egiten da).
 - Tributuen Lege Orokorraren 120.3 artikuluan eta lege hori garatzeko araudian aurreikusitako autolikidazioak zuzentzeko prozedura abiaraztea Zerga Administrazioan (lehen, behar ez den moduan egindako sarrerak itzultzeko prozedurari ekin behar zitzaion).

7.- **ZERGA TASAK**

7.1.- 100eko 10eko tasa murriztua, honako hauen entregetan (91.Bat.1.5.a,6.a,8.a):

- Animalientzako medikamentuak.
- Honako ondasunak:
 - Farmaziako produktuak.
 - Konpresak, tanpoiak, slip-babesleak, kondoioak eta sendagarriak ez diren beste antisorgailuak.
 - Mediku ekipoak, apartatuak eta Legearen Eranskinetako 8. atalean aipatutako gainerako tresneria (*eranskinean betaurrekoak, lenteak eta abar aurreikusi dira*), osagarriak, aldakinak eta ordezeko piezak.
- Loreak, bizirik dauden apaindurarako landareak, hala nola haziak, bulboak, ...

7.2.- 100eko 10ko tasa murriztua, honako hauen entregetan (91.Bi.1.3.1,4.a):

- Gizakientzako medikamentuak, hala nola forma galenikoak, formula magistralak eta prestakin ofizialak.
- “Minusbaliotasun” hitzaren ordezkari “ezgaitasun” erabaki da.

8.- KENKARIAK ETA ITZULKETAK

8.1.- 93. artikulua.- Kenkaria egiteko baldintza subjektiboak.

- Bost apartatu berria:
 - 7.8 artikulua arabera zergapetutako eragiketengatik jasandako kuoten kengarritasun-eza dakar.
 - Erakunde publiko “dualak”: bi eratako eragiketa motengatik jasandako kuoten kenkaria egitea baimenduko da, zentzuzko irizpide baten arabera.

8.2.- 98. artikulua.- Kenkaria egiteko eskubidearen sorrera.

- Bost apartatu berria:
 - Bidaia-agentzien erregimen berezia aplikatzekoa ez denean, jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea eragiketaren zerga sortzen den une berean sortuko da.

8.3.- 101. artikulua.- Kenkarien erregimena jardueraren sektore desberdinduetan.

- Bat apartatua. Gastu komunei dagokien hainbanaketa kalkulatzeko ez dira aintzat hartuko entitate taldearen jardueraren sektore desberdinduan egindako eragiketak.

8.3.- Hainbanaketa motak eta aplikatzeko irizpideak.

- Hainbanaketa berezia: Muga berria erregela hori derrigorrez aplikatu beharrekoa denean: hainbanaketa orokorraren eta bereziaren arteko aldearen portzentajea 100eko 20tik 100eko 10era murriztu da.

8.4.- 119 bis artikulua.- Itzulketak egitea ez zergaren aplikazio lurraldean, ez Erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta ez dauden enpresari edo profesional jakin batzuei.

- Esparru objektiboa zabaldu egin da: zerga aplikagarria den lurraldean erositako eredu, molde, ekipo eta abarrei lotutako ondasun eta zerbitzuen inportazioak eta erosketak; ferietara eta antzekoetara joatearekin lotutako sarrera, ostalaritza, jatetxe eta garraio zerbitzuak.

9.- ERREGIMEN BEREZIAK.

9.1.- Erregimen erraztua eta nekazaritza erregimena.

- **Erraztua:** Erregimenean jarraitzeko sarreraren bolumena murriztu egin da: 450.000 eurotik 150.000 eurora; eta nekazaritza jardueretan 300.000 eurotik 200.000 eurora.
Erregimenean jarraitzeko erosketen eta inportazioen bolumena murriztu egin da: 300.000 eurotik 150.000 eurora.
- **Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza:** Esparru subjektiboa zehaztu egin da ustategien titularrei dagokienez, eta kontzeptu honetan sartuko ez diren kasuak jaso dira.
Erregimenean jarraitzeko erosketen eta inportazioen bolumena murriztu egin da: 300.000 eurotik 150.000 eurora.

Muga kuantitatiboen ondorioak: 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

9.2.- Bidai agentziak.

- **Esparru subjektiboa:** erregimen berezirako aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituzten enpresari edo profesional guztiei aplikatuko zaie.
- **Zerga oinarria:** Aurrerantzean ere marjina gordina izango da, eragiketaz eragiketa. Desagertu egin da zerga oinarria zergaldi bakoitzerako modu orokorrean zehazteko aukera.

- **Jasanarazpena:** desagertu egin da prezioa 6kin biderkatu eta emaitza 100ekin zatitzearen emaitza fakturan jasanarazi beharra.
- **Ez aplikatzeko kasua:**
 - Zerga-ordainketa ondasun erabilien erregimen berezian aurreikusitakoaren antzeko erregimen berezian egiteko aukera ezarri da.
 - Aukera horren esparru objektiboa: Legearen VIII. Tituluan ezarritakoaren arabera zergaren kenkaria egiteko edo zerga itzultzeko eskubidea duten enpresari edo profesionalei zuzendutako zerbitzuak.
- **Kenkaria egiteko eskubidearen sorrera, aurreko kasuan (98.Bost artikulua):** erregimen honetan dagoen enpresariak bidaiari zuzenean lotuta jasandako kuotak kendu ahal izango ditu, eragiketari dagokion BEZa sortzen den une beretik aurrera (zergaren sortzapenaren eta kenkarirako eskubidearen sorreraren datak bateratu egin dira).

9.3.- Entitate taldeak.

- **Betekizun subjektiboak:** Taldeko entitateei hiru lotespen-agindu hauen betekizuna gehitu zaie: ekonomikoa, finantzarioa eta antolakuntzakoa.
- Lotespen finantzarioak berarekin dakar entitateari benetako kontrola egitea kapitalean edo boto-eskubidean 100eko 50etik gorako partaidetzaren bitartez.
- **Kenkariak:** jarduerak sektore desberdindu bat baina gehiagotan egiten dituzten enpresarien kasuan, erregimen honetan egindako eragiketak ez dira kontuan hartuko hainbanaketa komuna kalkulatzeko, entitate taldeen erregimena alde batera lagata.

9.4.- Telekomunikazio zerbitzuei, irrati edo telebistakoei, eta bide elektronikoz emandako zerbitzuei aplikatzeko erregimen bereziak.

- **Kokapen erregela berrien ondorioz:**
 - Aldatu egin da Europar Batasunaz kanpo finkatuta daudenei bide elektronikoz emandako zerbitzuen erregimen berezia, eta telekomunikazio zerbitzuetara, irrati edo telebistakoetara, zabaldu da (EBaz kanpoko erregimena).
 - Zerbitzu horiei aplikatzeko erregimen berri bat gehitu da, EBean baina kontsumoa egingo den estatu kideaz kanpo finkatuak dauden enpresari eta profesionalentzako (batasun barruko erregimena).

Xedapen komunak:

- Berretsi egiten dira aurreko erregimenean jasotako kontzeptu hauek: kontsumoko estatu kidea, aldizkako aitorpen-likidazioa, eta salbuesteko arrazoiak.
- Eta honako kontzeptuak erantsi dira, legezko aginduei jarraituz: telekomunikazio zerbitzuak, irrati eta telebistakoak, eta bide elektronikoz emandako zerbitzuak.
- Aukerako erregimenak dira; beraz, erregimenean sartzeko aukera erabiltzen bada, araubide hori estatu kide guztietan ematen diren zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, bidezkoa denean.
- Subjektu pasiboak bere borondatez baja eman dezake.
- Zergaren aitorpen-likidazioak nahitaez hiru hilean behin aurkeztu beharko dira bide elektronikoz, identifikazioari dagokion estatu kidean.
- Horrekin batera, zor den zerga kuota ordaindu beharko da, eta erregimen berezian jasandako kuoten ezen kopururik ezin izango da kendu aitorpen-likidazio horretan.

EBaz kanpoko erregimena

- **Berrespena:** orain arte indarrean egon den erregimena berretsi egin da.
- **Berrikuntzak:**
 - Orain erregimen horretan sartu dira telekomunikazio zerbitzuak, irriti edo telebistakoak, eta bide elektronikoz emandakoak.
 - Espreski jaso dira Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatutako enpresariei buruzko arauak (jarduera-hasieraren aitortpena egitean eman beharreko datuak; eta BEZaren Legearen 119. artikulua arabera jasandako BEZa berreskuratzeko jarraitu behar den prozedura).
 - Aurkeztutako aitortpenetan jasotako zifren zuzenketak gehienez ere 3 urteko epean egingo dira, autolikidazioak zuzentzeko eta aitortpen osagarriak egiteko Tributuen Lege Orokorraren 120.3 eta 122 artikuluetan aurreikusitako prozeduraren bitartez.

EBko erregimena

- **Erregela orokorra:**
 - Enpresari edo profesionalak ez diren eta halakotzat jarduten ez duten pertsonen zerbitzu digitalak ematen dizkieten enpresari edo profesionalen aplikatuko zaie, enpresari horiek beren jarduera ekonomikoaren egoitza edota establezimendu iraunkorra ez daukaten estatu kideetan. Enpresaria finkatuta dagoen estatu kidean, enpresari edo profesionalak ez diren eta halakotzat jarduten ez duten pertsonen emandako zerbitzuak Zergaren erregimen orokorrari lotuko zaizkio (hartzaileak enpresari edo profesionalak direnean bezalaxe).
- **Espainia “identifikazioko estatu kide” joko da:**
 - Beti, beren jarduera ekonomikoaren egoitza zerga aplikaziozkoa den lurraldean duten enpresari edo profesionalen kasuan, edota, egoitza Batasuneko lurraldean ez izanik ere, lurralde honetan soilik establezimendu iraunkor bat edo gehiago dituzten kasuan.
 - Beren jarduera ekonomikoaren egoitza Batasunaren lurraldean ez izanik, baina establezimendu iraunkor bat edo gehiago zerga aplikaziozkoa den lurraldean eta beste estatu kideren batean dutela, identifikazioko estatu kide gisa Espainia aukeratu duten enpresari edo profesionalen kasuan.
- **Betebehar formalak:** EBtik kanpo erregimeneko betekizunen antzekoak.
- **Kenkariak:**
 - Zergaren aitortpen-likidazioan ezin izango da kendu erregimen honi atxikitako kuota bat bera ere.
 - Kontsumoko estatuan bestelako eragiketak egiten badituzte, eta eragiketa horiek erregistratu eta bidezko aitortpen-likidazioak egin beharra badaukete, erregimen honetara bildutako eragiketetan jasandako kuotak kendu ahal izango dituzte aitortpen-likidazio horretan.
 - Bestela: jasandako kuotak berreskuratzeko aukera izango dute, finkatu gabekoei itzulketa egiteko bidea erabilita.
- **GOGORAGARRI: BEZaren eredu berria onartu da:**
 - 034 eredu: jardueren hasiera, aldaketa eta amaierako aitortpenak, zerbitzu digitalen erregimen berezian. Aitortpen-likidazioa eta sarrera egiteko eredu.

10. SUBJEKTU PASIBOEN BETEBEHARRAK.

10.1.- 164. artikulua.- Subjektu pasiboen betebeharrak:

- Bat.4. apartatua. Ezartzen diren kontabilitatea eta erregistroak eramatea, Merkataritza Kodean eta gainerako kontabilitate-arauetan xedatutakoa baldintzatu gabe.

11.- ZERGAREN KUDEAKETA

11.1.- 167. artikulua.- **Zergaren likidazioa.**

- **Inportazioak: Zergabilketa zergaren aitorten-likidazioen bidez egingo da, arauz ezarritako eran.**

12.- URRAKETA ETA ZIGORRAK.

- Urraketa eta zigor berriak erantsi dira.

13. ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRI BERRIA. Arau erreferentzia.

14. ERANSKINA

- Bosgarren apartatuaren idazkera berria. Aduanetakoa ez den gordailu erregimena.
- Zortzigarren eta Hamargarren apartatu berriak:
 - 91.Bat.1.6 c) aipatutako ondasunen zerrenda.
 - Zilar, platino eta paladio entregak, hala nola telefono eramangarri, bideojoko kotsola, ordenagailu eramangarria eta tableta digitalen entregak.

INDARREAN JARTZEA, 2015/01/01ean, adierazitako salbuespenekin.